



BILBOKO ADIERAZPENA

25 urte bete dira Nazio Batuen Biltzarrak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuenetik. Urteurren honetan, Euskadiko herri eta hiri ezberdinetako neska-mutil batzuk Bilbon elkartu gara, gure eskubideei (eta gure erantzukizunei) buruz hausnartzeko eta proposamenak egiteko. Honako hau adierazi nahi diegu Euskadiko biztanle guztiei eta, bereziki, gure politikariei:

1. Ahaleginak egin ditzatela neska-mutilok familia batean pertsona gisa garatu ahal izan gaitzen bermatzeko. Familia horrek –edozein itxura izanda ere- maitatu eta babestu egin behar gaitu, eta haztean aurkitzen diren trabak eta beldurrak gainditzen lagundu. Era berean, gizartean hobeto bizitzen lagunduko diguten balioak helarazi behar dizkigu.

Bereziki eskatzen diegu gure gurasoek familiaz arduratzeko denbora luzeagoa izan dezatela, eta ez daitezela lan bila beste edonora emigratzera behartuta egon. Halaber, familia hautsien umeei zoriotsu hazteko beste familia bat aurkitu ahal izan dezatela.

Gure aldetik, maitasuna eta laguntza eskatzen ditugun bezala, hitzematzen dugu ahaleginak egingo ditugula gurekin bizi diren pertsona guztiak ondo egon eta senti daitezen.

2. Ez dezatela ahantz ongizaterako eskubidea dugula: hau da, familia eta maitasuna ez ezik, bizileku egoki bat, eroso bizitzeko dirua eta baliabideak, osasuna eta ingurumen osasungarria eta hezkuntza ere izateko eskubidea. Osagai horien bitartez lortuko dugu berdintasunean haztea.

Ohartzen gara guk guztiok berbera merezi dugula, berdina garelako. Horregatik, hitzematzen dugu berdintasun horren alde lan egingo dugula, ardura partekatuz, ahal dugun neurrian.

3. Guran eragingo duten gauzak erabakitzen diren esparru guztietan, gauza txikiak nahiz garrantzitsuak izan, entzunak izateko dugun eskubidea aldarrikatzen dugu. Gure iritzia eman nahi dugu, gure beharrianak entzun ditzaten eta gure ideiak aintzat har daitezen.

Hitzematzen dugu errespetuz eta askatasunez mintzatuko garela eta gure ahotsa entzun dadin borrokatuko garela.

4. Kezka sortzen digu gure pribatutasun eskubideak. Teknologia berriak eta gizarte-sareak erabiltzean, geuk erabaki nahi dugu nork eta nola eskuratuko dituen gure datuak.

Gure aldetik, gure pribatutasuna arduraz erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu, besteen pribatutasuna errespetatuz; hitzematen dugu zailtasunak baldin baditugu gure gurasoei eta irakasleei laguntza eskatuko diegula; eta gure jarduera errespetatzen ez denean, salatu egingo dugula.

Horretarako, gure politika-arduradunei hauxe eskatzen diegu: salaketak jartzen ditugunean, aintzat har gaitzate, umekeriak ez direlako, hitzeman dezate denoi -nagusi, gazte nahiz adin txikikoei- teknologia berriak modu arduratsuan erabiltzen irakatsiko ditugula.

5. Dirua, sexua, jatorria, sexu-joera, erlijioa, adina eta abar direla medio, desberdintasunak eta bereizkeria ikusten ditugu gure errealitatean. Desberdintasunak kontuan hartzen ez ditugunean, gizarte anitzagoa ikusten uzten ez digun horma batekin egiten dugu topo. Baina horma horretan ate bat zabal daiteke, gizartea era askotakoa dela ikus dezagun. Berdintasunari eta aniztasunari ate hori zabaltzeko erantzukizuna daukagu, gutako bakoitzak eta denok osatzen dugun taldeak.

Horren haritik, behar adina diru izatea eskatzen dugu, berdintasunean hazi ahal izateko, eta hezkuntza jasotzea, aniztasuna ulertu eta errespetatu ahal izateko.

6. Jolasa, gure aisia aldarrikatzen dugu, pertsona gisa garatzeko ezin uko eginezko alderdia baita. Atsedean hartzea, gozatzea eta gu geu izatea ahalbidetzen digu. Gure jolas-denboran, zer egin nahi dugun erabaki dezakegu eta beste edonon ikasten ez ditugun gauzak ikasten ditugu.

Leku seguruak eskatzen ditugu, eta horiek zaindu eta errespetatuko ditugula hitzematen dugu.

Azkenik, adierazpen hau ahal duten toki guztietan zabal dezaten eskatzen diegu hausnarketa honetan lagundu diguten hiru elkarteei: Ararteko erakundeari, Save the Childreni eta UNICEFi. Orobat, guk ere hitzematen dugu gure lagun eta ikaskideen artean zabalduko ditugula Hitzarmeneko eskubideak eta adierazpen hau.

Bilbon, 2014ko urriaren 25ean